

## ***DIRU SARRERAK***

Gure zerbitzuak batez ere arazo ekonomikoak pairatzen dituzten familiei zuzenduta daudenez, gure prezioak merkeak izatea bilatzen dugu, gainontzeko energia konpainiekin alderatuz behintzat. Izango ditugun diru-sarrera motei dagokienez, bai udalek bai gure zerbitzuak erabiliko dituzten bezeroek ordainketak errepikariak egingo dituzte eta erabileragatiko saria izango da. Hau da, ordainketak ez dira aldi bakarrekoak izango, baizik eta hilekoak, eta gure zerbitzuen erabileragatiko ordainketa egingo da, eta ez produktu edo aktibo baten trukekoa. Prezioak dinamikoak izango dira, eta bezero bakoitzari eskaintza ezberdina egingo zaio, haren egoera ekonomikoaren eta momentura arte kontratatuta duen tarifaren arabera. Horrela, bezeroen bizi-kalitatea hobetzea pentsatuta dugu. Nahiz eta prezioa bezeroaren arabera aldatuko den, gutxi gorabeherako prezioa bat izatearren, hileko 25€/hilabetekoa izango da gutxi gora behera.

